



IKUSTEN DUTENA EGITEN DUTE

Euskaraz baldin badakizue, baina zuen seme-alabekin bakarrik hitz egiten baduzue, haurrentzako hizkuntza dela pentsatuko dute eta heldu izatean, ez dute erabiliko. Euskaraz ez badakizue, eta zuen seme-alabek ikasteko ahalegina egiten duzuela ikusten badute, euskara zuentzat garrantzitsua dela pentsatuko dute eta ondorioz beraientzat ere hala izango da.

ENTZUTEN DUTENA ESATEN DUTE

'Hitz egin euskaraz, esan ezazu euskaraz...' esaten badiezu, baina zuen artean edota lagunekin euskaraz hitz egiten ez baduzue, zera esango dizuete.

Orain haurren %99k euskaraz ikasten du.

Zuen seme-alabek, heldu izatean, euskara 'helduan' hitz egiten duten kide eta lagunak izango dituzte eta euskara 'heldua' eskatuko dieten lanpostuak izango dituzte. Zer egingo dute, euskara, heldu gisa, garatu ez badute?

Eta zuek, zer??



Irtenbidea



Euskaraz biok baldin badakizue, beraiekin erabiltzeaz gain, hitz egin ezazue zuen artean eta beste helduekin.



Euskaraz amak edo aitak soilik baldin badaki, komenigarria da bere haurrekin eta beste helduekin hitz egin dezan, eta beste kidea, ikasten saiatzea. Baina ezinezkoa bada, indartu bere ingurua euskarazko ekintzekin eta erakutsi hizkuntzaren ikasketan ipintzen duzuen ahalegina.



Euskaraz ez badakizue, hoberena hizkuntza ikasten hastea da, ez maila gorena lortzeko, baina bai zuen seme-alabak motibatzeko, zuen ahalegina ikus dezaten. Eta batez ere, bideratu itzazue euskaraz garatzen diren jardueratara.

Eskolarekin ez da nahikoa, haurrek behar duten euskarak lotura izan behar du etxeko bizitzarekin, kalearekin, parkearekin, txangoekin, ipuinekin eta eleberriekin, kirolarekin... Haurra zaintzeko pertsonaren baten laguntza behar izanez gero, saia zaitetze pertsona horrek euskaraz hitz egin dezan, eta ipuinak, jolasak edo bestelako jarduerak beti euskaraz garatzeaz ardura dadin.